



abantada batean abiaduraz, ziztu bizian, azkar	«Ordurako aita abantada batean jaitsi zen hondartzaraino, labarreko bidean behera, eta ni ere haren atzetik joan nintzen ilunpetan...»	(33)
abegikortasun harrera ona egiteko gaitasuna	«—Emakume —esan zion Parvatiri— behin baino gehiagotan izan naiz zure etxe honetan eta zure abegikortasuna estimatzen jakingo dut.»	(138)
agor sikua, lehorra, antzua,	«Ez ditut sekula lurralde agorragoak ezagutu bidaia honetan ikusitakoak baino. Basamortuak kilometro luzeetan, harea eta harea, egunez bero eta gaeuz hotz...»	(109)
ahitu xahutu, bukatu, gastatu	«Itsasoaren gesalak hezetzen ez bagaitu, umorea ahitu egiten zaigu, bizitzeko gogoak agortu, eta arima lehortu.»	(93)
akitu ahitu, nekatu	«...baina nire ahuntzek ez zuten itzal handirik topatzen jaten ari ziren bitartean, ta egun eguzkitsuenetan beroak akituta ibiltzen ziren.»	(81)
ala dudala lagun Ala jaingoaren laguntzari esker	«Hona nentorrela, zure ahotsa entzun dut, jauna, eta berehala ezagutu zaitut. Entzuten dudan ahots bakoitza ezagutzen dut. Ala dudala lagun. »	(56)
alderik alde alde batetik bestera	«...bailara zoragarri bat topatu genuen. Mendi garaien magalean zegoen eta ur hotz eta garbiko ibai batek zeharkatzen zuen alderik alde. »	(109)
almaitz almaiza, motrailua, almeriza	« Almaitza eskatu nuen, eta ekarri zidatenean hantxe birrindu nituen ale batzuk.»	(84)
ameskeria kimera, fantasia, ametsa	«— Ameskeria? Nik adina lagun galdu izan bazenitu han, ez zenioke ameskeria deituko! Makina bat aldiz entzun ditut leku hartako kontuak.»	(87)
apetaldi guraria, antojua	«Hamabost urteko alaba bat nuen, eguzki distiratsua baino ederragoa eta gizatxar baten apetaldiak galdu gintuen.»	(134)
arrautz-oskol arrautz baten azala	«Halako batean karraska izugarria, ontziaren danbatekoa labarraren kontra, ohol hautsien kirrinka, arrautz-oskol erraldoi baten azal kraskatuaren danbarra...»	(33)
arrunt serio oso, zeharo, hagitiz, guztiz	«Gaur Tomaxito dauka alboan, arrunt serio, osaba noiz esnatuko zain; eta esnatu denean, biak berriketan aurkitu dira txutxu-mutxuka.»	(8)
astindu jipoitu, jo	«Gure ontziaren oihalak zartada-hots zaratatsuak egiten zituen, haize zakarrak zaldi-zartailu baten gisara astintzen zuenean.»	(104)
atzendu ahaztu, burutik joan	«Esnatu zenerako, loak eramanak zituen bere pentsamendu sakonak eta atzendu egin zitzaizkion buruan zeuzkan kontuak.»	(100)
aztarren arrastoa, aztarna, lorratza	«Hondartzaren aztarrenik ez zegoen. Itsaso haserreak ia estalita zeukan hondarra, eta olatuen bitsa eta bisutsa labarren oineraino iristen ziren.»	(33)
baga olatua, uhina	«...oihalak oraindik bildu gabe zeuden baga erraldoi batek itsasontzia bere atzaparretan hartu eta etxe handi baten altueraraino igo zuenean.»	(91)
batik bat batez ere, behintzat,	«baina Behorlegi auzoan gauza arraroak gertatzen dira zenbaitetan, lainoa dagoenean batik bat. »	(11)
bazterrak endredatu bazterrak nahasi, endredatu	«Bendak buruan ikusi dituztenean Bagdadeko ipuin-kontalaria edo horrelako zerbait dela sinetsi du, eta hor dabil bazterrak endredatu beharrean. »	(15)
begiramen begirunea, gizalegea,	«...kontakizun hark ez zeukan amaitzeko itxurarik, bi lagunak kortesia handiz eta begirunezko esaldiz ai baitziren elkarrekin barriketan.»	(70)
bere onera etorri kordea berreskuratu	«Buruan kolpe handia hartu du, eta oraindik ez da bere onera etorri. Emaiozu denbora, ikusiko duzu nola pasatuko zaion dena.»	(15)
bihurritu asaldatu, haserretu	«Han muturraren aurrean, ur lasterrak bihurritzen dira itsasoan, eta haize bihurriak zirimolatzen zeruan.»	(27)
bisuts bitsa, aparra	«Hondartzaren aztarrenik ez zegoen. Itsaso haserreak ia estalita zeukan hondarra, eta olatuen bitsa eta bisutsa labarren oineraino iristen ziren.»	(33)
bits aparra, bisutsa	«Hondartzaren aztarrenik ez zegoen. Itsaso haserreak ia estalita zeukan hondarra, eta olatuen bitsa eta bisutsa labarren oineraino iristen ziren.»	(33)
brankan itsasontziko aurreko alde	«Bakar-bakarrik brankan kolpetxo bat eta ababorreko aldean mailatu txiki bat izan zituen. Besterik ez.»	(91)



burko burukia, oheburukoa, kuxina	«Teresak ohean eserita bilatu du osaba Florentino, lasai jarrita burko artean. Abu Nuasen lagun mina dela esaten ari zaio Tomaxitori.»	(16)
burua arindu arrazoitzeko gaitasuna galdu	«Eskaileretan erori zenetik burua arindu egin zaio gaixoari –esan dio bere senarrari eguerdian etorri denean–. Ez dakit zer egin.»	(15)
burumakur etsiturik, desanimaturik	«Maitasunak bihotza lapurtu zion, eta maiteak alde egin, eta triste eta burumakur sentitzen zen.»	(81)
diosal agurra	«Ohizko agurren eta diosalen ondoren, ostatuko nagusiak bazkaltzera gonbidatu zituen hiru zaldunak.»	(68)
elkor sikua, agorra, lehorra	«Arrantza urria eta lurra elkorra dira gure herrian. Pobreak gara gure herrian.»	(26)
erantsi lotu, itsatsi	«Eta uhalaren erdian letoizko eraztun bat handik listaria edo soka erantsi eta animalia paseatzera eraman ahal izateko.»	(9)
erretaulki albokoa aholkularia, kontseilaria	«...eta hortik aurrera Abu Nuas izan zen Harun-ar-Rashid kalifaren olerkari partikularra, bere meneko eta erretaulki (erregeren aulki) albokoa .»	(145)
erriatu jaitsi	«— Erria oihala! –agindu zuen kapitainak, eta marinelak oihal handia jaisten saiatu ziren.»	(104)
errukarri urrikalgarría	«—Mesedez, jauna, izan erruki. Zorigaitzak jo eta itsasoan galdutako errukarri batzuk gara. Izan zaitez gupidatsu...»	(118)
esanekeo etorkorra, obedientea	«—Ez dakit, bada... –esan dio Maitek, neska heldua eta esanekeo baita.»	(25)
eskuilatu eskuilaz orraztu (cepillar)	«Gizon handia da, kalifaren zaldia eskuilatzeaz arduratzen baita. Adiskide ona dudanez, zuek biok hemen lo egiteko baimena lortuko dudala uste dut.»	(51)
estropezu behaztopatu, tupust egin	«...bi gizon urdinak kalifa ezkutatu zen ezkaratzera sartu ziren, eta ilunpean kalifarekin estropezu egin zuten.»	(20)
etzan-aulkian besaulkia, sofa	«Osaba Florentinok bazkalondorengo lo-kuluxka egiten du egunero. Etxe aurreko etzan-aulkian jarri, zapatak erantzi, oinak aulkitxo baten gainean jarri...»	(8)
ezkaratz ataria, ataurrea	«Maria Naparraren ezkaratzean , eskailera-mailetan eserita, hiru lagun daude: Iñazio, Maite eta Tomaxito.»	(5)
flakia indarrrik eza, erkintasuna, ahuldadea	«Eta holaxe izan zen. Landare horien hostoak hartzen dituenak uxatuko ditu loa eta flakia .»	(102)
galda bero, gar	«Langintza hura gogorregia zen niretzat. Eguzkipeko galdetan egunez erre, hotzak akabatzen pasatu gauak, eta gatza biltzen eskuak zartatuta geratzea ez zen atsegina.»	(80)
gesal itsasoko ura, kresala	«Itsasoaren gesalak hezetzen ez bagaitu, umorea ahitu egiten zaigu, bizitzeko gogoak agortu, eta arima lehortu.»	(93)
gizatxar pertsona gaiztoa, doilorra,	«Hamabost urteko alaba bat nuen, eguzki distiratsua baino ederragoa eta gizatxar baten apeltaldia galdu gintuen.»	(134)
gizon gordin gizon gaztea, sendoa, sasoikoa	«Berehala bizarra hennaz gorritutako gizon gordin bat agertu zitzaien irribarrez, eta olerkiak, abestiak eta irri-kantuak errezitatu edo abestu...»	(23)
gizon ihar gizon argala	«Abdala ilezuriak buruko keinu batez seinalatutako gizon hura, gizon ihar , eskatu eta triste bat zen.»	(72)
harroxko harroa, harrotxoa	«Tomasitori kostatu egin zaio ahate harroxkoari uhala jartzea, baina lotu du azkenean.»	(11)
hasperen zizpurua, hasbeherapena	«Nire zorra kitatu eta bakean bizi nahi dut! Gazteak kutxa eman zion Kasimi, eta lasaitasunezko hasperena atera zitzaion barren-barrenetik.»	(141)
hazi alea (ereiten dena)	«Hau bai dela historia harrigarria (...) irakurtzen duen edonork izango du zer ikasi orratz baten muturrez sesamo hazi baten gainean idatzita badago ere.»	(141)
hazka egin hazkatu, atzamar egin	«Osaba Florentinok hazka egin du turbantea altxata. Buruko bendak gero eta nahasiagoak eta deseginagoak dauzka gizajoak.»	(140)



igarle asmatzailea, profeta, aztia	«—Ala handia da! Ala jainko bakarra da, eta Muhamed da Alaren igarlea! »	(14)
izarratu izarrez bete, izartu	«Gaua izarratua zegoen, eta bi haitz beltzak oso atzean geratu ziren, ahaztuta bezala.»	(91)
kamaina lastozko ohea, kamantza	«Seguru asko itsasontziko kamainaren bat izango zen. Haien gainean, uretan galdutako marinel haietako bat zegoen, kordea galduta, eta orain...»	(33)
karel ertz, bazter	«...hartu nuen amak emandako kuttuna, izurdearen hagina, eta ekaitzak ontziari eragiten zizkion balantzak jasan ezinik zingili-zanguluka kareleraino hurbildu nintzen.»	(105)
kasa kabuz	«—Neure kasa ohera joateko gai naiz! —esan du osaba Florentinok; baina eskailera barrenetik jaikitzen hasi denean, ama Teresak lagundu behar...»	(14)
kedar tximiniako hauts beltza	«Masrur bi metrotik gorako erraldoi bat zen, azalez eta larruz kedarra baino beltzagoa.»	(61)
kedarra baino beltzago oso beltza	«Masrur bi metrotik gorako erraldoi bat zen, azalez eta larruz kedarra baino beltzagoa. »	(61)
kirrinka karranka, hots metalikoa	«Halako batean karraska izugarria, ontziaren danbatekoa labarraren kontra, ohol hautsien kirrinka , arrautza-oskol erraldoi baten azal kraskatuaren danbarra...»	(33)
kitatu berdindu, pagatu, kito egin	«Orain aurkitu zaitut, ez dakit zein paturen bidez, eta hemen bertan itzuliko dizut kutxa. Nire zorra kitatu eta bakean bizi nahi dut!»	(141)
korde konortea, zentzua	«Maite eta Tomaxito ere berehala irten dira etxetik, eta osaba Florentino lurrean etzanda ikusi dute, kordea galduta.»	(13)
kraskatuaren zarataz atereaz hautsita	«Halako batean karraska izugarria, ontziaren danbatekoa labarraren kontra, ohol hautsien kirrinka , arrautza-oskol erraldoi baten azal kraskatuaren danbarra...»	(33)
kuttun maitea, bihotzekoa	«Ni osaba Bin Floren naiz, Bagdadeko Abu Nuas ipuin kontalari ospetsuaren adiskide kuttuna. »	(15)
kuttun zinginarria, zintzilikarioa	«Amak kuttun bat jarri zidan lepotik zintzilikaria eta esan zidan: "Kuttun hori izurde baten haginarekin egina da. Lepotik daramazun bitartean ez duzu kalterik izango".»	(76)
labar itsas ondoko amildegia	«Nire herria itsasertzean dago, juxtu-juxtu Buru-hezurren lurmuturraren gainean, labarren gaineko amildegian kokatuta, miru bat bezala itsaso zabalari begira...»	(25)
letoi kalitate gutxiko metala	«Eta uhalaren erdian letoizko eraztun bat handik listaria edo soka erantsi eta animalia paseatzera eraman ahal izateko.»	(9)
listaria korda oso mehea (bramante)	«Eta uhalaren erdian letoizko eraztun bat handik listaria edo soka erantsi eta animalia paseatzera eraman ahal izateko.»	(9)
lizundu urdindu, herdoildu	«Euri honek jarraitzen badu denok lizundu egingo gara.»	(5)
logaletu logura hartu, lo egin nahi	«—Hiru gauza nahi ditugu: lau gizon gosetuentzako afaria; lau gizon logaletuentzako ohea, eta bidaia luzea egiteko presta dauden lau gizonentzako zaldiak.»	(129)
lotsariak lotsaizunak, sexu organoak	«...eta izter meheen inguruan bilbutako oihal zikin eta zahar bat bere lotsariak estaltzeko.»	(72)
luzetsita egon luzeegia dela pentsatu	«—Zin egin zenidan Basorara itzuliko ginela —esan zidan kapitainak, luzetsita —. Ez dakit lurralde hau munduaren amaiera den ala ez, baina...»	(103)
magal mendi-hegala, bi mendien artekoa	«...bailara zoragarri bat topatu genuen. Mendi garaien magalean zegoen eta ur hotz eta garbiko ibai batek zeharkatzen zuen alderik alde.»	(109)
mailatu kolpez sakonuneak egin, uspeldu	«Bakar-bakarrik brankan kolpetxo bat eta ababorreko aldean mailatu txiki bat izan zituen. Besterik ez.»	(91)
maina lausengua, losintxa, zurikeria	«Osaba oso gustura sentitzen da bere iloba maitea mainak egitera etortzen zaionean, eta turbantea buru gainean atondu eta prestatzen uzten dio.»	(144)
maidire izara	«Ama Teresak oheko maidire eta estalkiak itxuratu eta bildu egin dizkio osaba Florentinori.»	(43)



malapartatu zoritxarrekoa, madarikatua	«Ate malapartatu hura zeharkatzeko prestatzen ari ginela, marineletako bat nire gelara abiatu zen. Nik ikusi eta atzetik jarraitu nintzaion.»	(123)
mendeko morroia, agindupekoa	«(Harun-ar-Rashid izeneko kalifa) Beti zuzena eta ona izaten saiatzen zen, eta asko maite zuten mendekoek .»	(17)
miazkatu milikatu	«Baina jeitsi eta bildu aurretik, aparrak eta bitsak gure ontzi gainean lehertzen ziren itsasontziaren egurrak eta gure oinak miazkatuz .»	(104)
miru txori mota harraparia	«Nire herria itsasertzean dago, juxtu-juxtu Buru-hezurren lurmuturraren gainean, labarren gaineko amildegian kokatuta, miru bat bezala itsaso zabalari begira...»	(25)
mudatu aldatu	«Aita harri bihurtuta bezala geratu zen nire hitzak entzundakoan, eta aurpegia mudatu zitzaion hondar zuria baino zurbilagoa gertu arte.»	(32)
muin musua	«Sri Lankara iritsi ginenean, hogeitaz gure zain egon zen gizon santu hark lehorrera salto egin eta muin eman zion lurrari.»	(98)
narrats zikina, lardatsa, saskila	«...argirik gabeko kalekka ilun batera iritsi zen (...) arrain kiratsa zeukan kale narrats batera, eta han bazter ezkutu batean, iruditu zitzaion Bagdadetik aparte zegoela.»	(18)
orban mantxa, uger, zetaka	«Kareletik itsaso beltzari begiratu nion, eta hodei beltzen artean hondartza zuri baten orbana ikusi nuen urrutira.»	(40)
otarretxo saskia edo otzara txikia	«...gaueko festa horiek antolatzea garestia zenez, asko eskertuko zuela irteerako otarretxoan diru pitin bat botatzea, nor bere ahalen arabera.»	(46)
padera zartagina	«Eta padera batean txigortu nituen ale haiek belztu arte. Nire larruzko zorroan ondo gorde nituen gero eta jeke tristearen jauregira joan nintzen.»	(83)
pattal gaixorik, osasunez gutxiturik	«Gaur pattal samar dirudi osaba Florentinok, ipuina kontatzen hastekogogorik gabe.»	(67)
patu zoria, halabeharra, adurra,	«Hainbat urte itsasoan marinel ibili ondoren, zoritxar batek Basorako itsasertz honetara ekarri ninduen eta patuak hemen lotu nau.»	(69)
piko aldapatsua	«Harrapatutako arrainak labarreko aldapa pikoan gora bizkarrean igotzen baititugu...»	(26)
purrustada errieta, erremuskada	«Abu Nuasi begietako distirak ere ihes egin zion kalifaren purrustada entzun ondoren. Beldurturik zegoen.»	(145)
sastada ziztada	«Iturrira zetorren ur bila, buru gainean lurrezko pitxar edo ontzi bat zuela, eta ikusi nuen bezain laster sentitu nuen maitasunaren sastada .»	(109)
sastakai arma zuria (puñal)	«Bi gizon urdinek gerrikoan zeuzkaten sastakaietara eramane zituzten eskuak...»	(20)
sesamo landare mota bat	«Hau bai dela historia harrigarria (...) irakurtzen duen edonork izango du zer ikasi orratz baten muturrez sesamo hazi baten gainean idatzita badago ere.»	(141)
sinesle fededuna, sinismenduna	«—Zatozte hona, ene txikitxook. Harun-ar-rashid sinesle guztien kalifa ahaltsuaren historiak kontatu nahi dizkizuet eta.»	(17)
trepeta zaldi edergailua, uhaleria	«Hiru zaldiek trepeta dotoreak eta garestiak zituzten: zilarrezko apaindurazko zelak, larru sendozko uhalak, zeta koloretsuko apaingarriak...»	(63)
trosta zaldien ibilkera dotorea	«Lapurreta-asmo hartatik onik atera zirela ikusi zutenean, trostan aldendu ziren hiru zaldunak.»	(66)
ttotto txakur (umeen hizkera)	«...esango diot on Ebaristo sendagileari bisita bat egitera etortzeko.. eta buruko kolpe hori hobeto badago, ttottoaren salara turbante hori!»	(43)
txerpolari saltzaile ibiltaria	«Joan ziren haren jauregira inguruetako pailazo, txerpolari saltinbanki eta txiste kontalari guztiak, baina jeke tristearen bihotza ez zen alaitzen.»	(83)
txigortu erregorritu, arre kolorea hartu arte	«Eta padera batean txigortu nituen ale haiek belztu arte. Nire larruzko zorroan ondo gorde nituen gero eta jeke tristearen jauregira joan nintzen.»	(83)
txilioka oihuka, irrintzika	«—Zer diozu ama? —esan zuen. Ikusi zuen lurrean etzanda zegoen gizona, eta pozez txilioka hasi zen. Aita! Aita! Aita!»	(137)



txistu (batean) abaila, abiadura, ziztu bizian	«Maite eta Tomaxito txistu batean abiatu dira indianoaren etxera. Indianoaren etxea auzoko etxerik dotoreena da.»	(13)
txutxu-mutxuka marmarrean, marmarka	«Gaur Tomaxito dauka alboan, arrunt serio, osaba noiz esnatuko zain; eta esnatu denean, biak berriketan aurkitu dira txutxu-mutxuka .»	(8)
xarmagarri erakargarria, atsegina	«Parvatiren deiari erantzunez, sarreran leihatila zaintzen egon ohi zen neskatxa etorri zen behin ere baino xarmagarriago .»	(137)
xuhur zikoitza, zekena, diruzalea	«Baina gero diruak tentatu zuen aita, eta xuhur bihurtu zen, zikoitza. Beste gauza guztiak ahaztu zituen, eta dirua egin zen bere bizitza miserablearen jabe...»	(31)
zaldi-zartailu zaldiak akuilatzeke zigorra	«Gure ontziaren oihalak zartada-hots zaratatsuak egiten zituen, haize zakarrak zaldi-zartailu baten gisara astintzen zuenean.»	(104)
zamaketari lepakaria, soinkaria	«Ni zamaketaria naiz Basorako kaian.»	(74)
zarpail jantzi zatarra, trauskila,	«Basorako gizonik pobreena eta zoritxarrekoena zirudien. Zarpailak besterik ez zituen janzteko.»	(72)
zartada-hots zaplastekoaren zarata	«Gure ontziaren oihalak zartada-hots zaratatsuak egiten zituen, haize zakarrak zaldi-zartailu baten gisara astintzen zuenean.»	(104)
zartatuta arrakalatu, pitzatu	«Langintza hura gogorregia zen niretzat. Eguzkipeko galdetan egunez erre, hotzak akabatzen pasatu gauak, eta gatza biltzen eskuak zartatuta geratzea ez zen atsegina.»	(80)
zingili-zanguluka estropezu eginez	«...hartu nuen amak emandako kuttuna, izurdearen hagina, eta ekaitzak ontziari eragiten zizkion balantzak jasan ezinik zingili-zanguluka kareleraino hurbildu nintzen.»	(105)
zipotz tematia, setatsua	«—Utzi enbustekeriak eta entzun esan behar dizudana, olerkari zipotz halakoa! —esan zion kalifak haserre moduan.»	(143)
zirimola(tu) zurrunbiloa edo bolada egin	«Han muturraren aurrean, ur lasterrak bihurritzen dira itsasoan, eta haize bihurriak zirimolatzen zeruan.»	(27)
zoli zorrotza, fina	«...ikusi dut belarri zolia duzula, eta jakin badakizunez Kalifaren belarria gorra dela jauregiko murrueetatik kanpo, zu izango zara (...) kalifaren belarria.»	(56)